



**832/2019 EBAZPENA, AZAROAREN 27KOA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA. HORREN BIDEZ AGINTZEN DA OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO WEBGUNEAN ARGITARATZEA 1. ETA 2. LEHENTASUNETAKO 2018KO ALDI BATERAKO KONTRATAZIO- ZERRENDA BEHIN BETIKOAK, MODALITATE HAUETAN: LANPOSTU HUTSEN ZERRENDA ETA ORDEZKAPENEN ZERRENDA, ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA ETA ERIZAINZAKO LAGUNTZAILEA KATEGORIETARAKO.**

2011ko maiatzaren 9ko Erabakia (EHAA, 106 zk., 2011ko ekainaren 6a), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluarena. Horren bidez arautzen dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko aldi baterako kontratazio-zerrendak.

321/2019 Ebazpena, maiatzaren 7koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena. Horren bidez Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratu ziren 1. eta 2. lehentasunetako 2014ko Enplegu Publikoaren Eskaintzako aldi baterako kontratazio-zerrenda behin-behinekoak, 2011ko maiatzaren 9ko Erabakian araututako irizpideen arabera ordenatuak, modalitate hauetan: lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda (Familiako FEM - LMAT eta Pediatriako FEM - LMAT kategorietarako izan ezik).

Behin-behineko zerrenda horien aurka ezarritako erreklamazioak aztertu ondoren,


**EBAZTEN DUT**

**Lehena.-** Agintzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratzea 1. eta 2. lehentasunetako 2018ko aldi baterako kontratazio-zerrenda behin betikoak, modalitate hauetan: lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda, Administrari Laguntzailea eta Erizaintzako Laguntzailea kategorietarako.

Zerrenda horiek 2019ko azaroaren 28an sartuko dira indarrean.

**Bigarrena.-** Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko azaroaren 27an

  
María Pilar Uriarte Brizuela  
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA  
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Iz.: María Pilar Uriarte Brizuela

**OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA**